

- Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?

Gure zerbitzua kostu baxuak dituelako eramaten da aurrera eta, irakasleen kalitateak eta klaseak dinamikoak izateak ere asko lagunduko duela uste dugu. Kostuak aldakorrak izango dira klase orduak kontuan izanda eta, lehen aipatu bezala, kostuak baxuak izango dira irakasle bakoitzak haien kostua aukeratuz.

Eskala-ekonomikoari dagokionez, deskontuak eta sariak edukiko dituzte gure bezeroek (irakasleek eta ikasleek). Diru-iturrietan azaltzen dugun bezala, urte batean 9 klase behar izan badituzu hamargarrenean erdia ordaindu behar izango dute. Eta "irakasle" batek 10 klasero 10€ko saria edukiko du.

Beste aldetik, informatikoaren soldata kostu finkoa izango da, hilabetero ordainduko zaio eta egiten dituen lan orduak kontuan izanda ordainduko diogu. Gutxi gora behera orduko 6€. Eta gure zerbitzuak irabazi handiak izanez gero, denborarekin soldata igoko zaio.